



Esp.kodea: 2021PHEL0003
Titularra: UDALTZAINGOA

Gaia: 2021eko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: 6 herritarren
laguntzaile

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPEN A
6 herritarren laguntzaile	Kaleko lan taldea, herritarrei informazioa emateko eta elkarbizitza gaiekin laguntzeko	% 100	5 hil.

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile moduan izena emanda dauden pertsona langabeak izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- Ezingo dira kontratatu 2019ko edo 2020ko ekitaldietako deialdietan kontratatuta izan diren pertsonak, hautagai libreak ez badaude behintzat. Baldintza hau Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu eta informatuko du.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuraduna, 55 urtetik gorakoa edo/eta emakumea izatea.
- Zigor aurrekaririk ez izatea.
- Lanbide enplegua sustatzeko deitutako laguntza deialdiko baldintzak betetzea (EHAA 2021/06/30). Horren arabera, hautagaiak kolektibo hauetako batekoak izan behar dira:
 - 35 urtetik beherakoak.
 - 45 urtetik gorakoak.
 - Luzaroko langabeak.
 - Gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiak egiaztatutako merituak baloratuz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:



Esp.kodea: 2021PHEL0003
Titularra: UDALTZAINGOA

Gaia: 2021eko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: 6 herritarren laguntzaile

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
 - Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
 - Tel.: 943 252000
 - baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak:**
 - Euskara: 2. HE egiaztatzea (agriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu
 - Emakumea izatea: 10 puntu.
 - Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuraduna izatea: 10 puntu.
 - 55 urtetik gorakoa izatea: 10 puntu
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak**
 - *Teoriko-praktikoa:* lanpostuaren funtzioekin (Arrasateko zerbitzu publikoen eraikin nagusien eta eskolen kokalekuekin...) lotutako ahozko edo idatzizko proba 0tik 25 puntura baloratuko da eta gutxienez 12,5 atera behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa:* kurrikuluma, lanpostuan egin beharreko lanaren gaineko jakintza eta lana egoki betetzeko gaitasuna aztertzeko: 0tik 25 puntura baloratuko da eta gutxienez 12,5 puntu atera behar da aurrera egiteko.
- **Hautaketa:**
 - Puntuazioaren arabera hautagaien zerrenda osatuta, lehenik eta behin, honako kupo hauek beteko dira hurrenez hurren:
 1. 2 hizkuntza eskakizunari dagokion maila izatea: 3 hautagai.
 2. 55 urtetik gorakoak: hautagai bat.
 3. Emakumeak: 3 hautagai.
 4. Diru sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuradunak: 3 hautagai.